



GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD 2017 UDAKO ARGAZKI-HIZKI LEHIAKETA

OINARRIAK

1) GAIA

- 2017ko udan munduko edozein lekutan egindako bidaia, txangoa, egun-pasa... argazkien eta hitzen bitartez kontatu.
- Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak Elkarten Federazioak elkarlanean antolatutako lehiaketa.

2) PARTE HARTZEKO MODUAK ETA BALDINTZAK

- **Epea: 2017eko ekainaren 21etik irailaren 21era**, biak barne.
- Parte hartzeko bi modu daude:
 - a) Argazki-hizki lehiaketa:**
 - **18 urtetik gorako** pertsonak har dezakete parte
 - 2017ko udan ateratako **20 argazki** osatutako **argazki-sorta** bidali behar da oihaneder@oihaneder.eus helbidera.
 - Argazkiak editatu daitezke, gutxienez 300 ppx izan behar dituzte eta JPG edo PNG formatuan aurkeztu behar dira
 - Argazki-sortari eta argazki bakoitzari euskarazko izenburua jarri behar zaio
 - Argazkiekin batera egindako bidaia, txango edo egun-pasaren azalpen laburra bidali behar da (1500-2000 karaktere artean)
 - Egilearen honako datuak zehaztu behar dira: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa, jaiotze data eta ohiko bizitokia.
 - Posta elektronikoaren gaien *Gasteiztarrak Arraun The World 2017* jarriko da
 - Ez da kontutan hartuko izenburu eta bidaiaren azalpenik gabeko argazki-sortarik
 - b) Publikoaren gazte saria:**
 - **16-30 urte bitarteko gazteek** har dezakete parte
 - 2017ko udan ateratako **5 argazki** igo behar dira **Instagramera**.
 - Argazki-sorta igotzean:
 - Egindako bidaia deskribatzen duen euskarazko izenburua jarri
 - #GAW2017 traola erabili
 - @gauekoak eta @oihanedereuskararenetxea aipatu

- Argazkiak editatu daitezke
 - Bidaiaren azalpenik gabeko argitalpenak ez dira kontutan hartuko
 - “Atsegin” gehien dituen 5 argazkidun argazki-sortak irabaziko du
-
- Parte hartzaileak ez dira zertan gasteiztarrak izan; euskaldun orok har dezake parte lehiaketan.
 - Nahi beste argazki-sorta bidal daitezke. Egile beraren lan bat baino gehiago saritua suertatzekotan sari bakarra jasoko du.

3) EPAI-MAHAIA ETA EPAIA

- Epaimahaia Oihaneder Euskararen Etxeko teknikari batek (idazkari lanak), Arte eta Lanbide Eskolako irudi saileko irakasle batek, Gauekoak elkarten federazioko ki batek eta lehiaketan laguntzaile diren Gasteizko euskara elkarteetako kide banak osatuko dute.
- Epaia ematerako orduan baloratuko dena:
 - Argazkien originaltasuna
 - Gaiarekiko lotura
 - Argazkien kalitate artistikoa eta teknikoa
 - Bidaia, txango edo egun-pasaren azalpena
- *Publikoaren gazte sariaren* kasuan, publikoak epaituko ditu Instagramera igotako argazkiak “atsegin”-i emanez; ez epai-mahaiak.
- Epaiak 2017ko irailaren 27an jakinaraziko dira, Oihaneder Euskararen Etxeko eta Gauekoak-eko webguneetan (www.oihaneder.eus / www.gauekoak.org)

4) SARIAK

- Argazki-hizki lehiaketan lau sari nagusi emango dira eta *Publikoaren gazte sarian* bosgarren bat.
- Sariak ezingo dira metatu.

a) Argazki-hizki lehiaketako sariak:

- Proiektu irabazleen egileek Durangoko azokan asteburu-pasa kulturala irabaziko dute:
 - 2 lagunentzako bi gutako egonaldia Durango ondoko *Garaiko* landetxean (150 €)
 - Azokan gastatzeko 100 €ko bonoa
 - Guztira **250 €** sari bakoitzeko

b) Publikoaren gazte saria:

- Instagramen “atsegin” gehien dituen 5 argazkidun argazki-sortaren egileak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan produktu kulturaletan gastatzeko **100€**ko bonoa irabaziko du.

5) ARGAZKI ERAKUSKETA

- Argazki-hizki lehiaketan saritutako lanekin argazki erakusketa egingo da Oihaneder Euskararen Etxean
- Argazki-sorta bakoitzetik 5 argazki aukeratu beharko dituzte irabazleek erakusketan jartzeko
- Pantaila digital batean lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak ikusi ahalko dira
- Erakusketa 2017ko urrian zehar egongo da ikusgai

6) AURKEZPEN PUBLIKOEN ZIKLOA

- Argazki-hizki lehiaketako irabazleek bidaiara, txango edo egun-pasaren aurkezpen publikoa egingo dute. Horretarako argazkiekin aurkezpen bat prestatuko dute (PowerPoint, Prezi...).
- Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak-ek Gasteizko GEU, Zizta eta Sarburu elkarterekin elkarlanean, Gasteizko lau leku bilatuko dituzte aurkezpenak egiteko
- Aurkezpenak 2017ko urrian zehar izango dira

7) OHARRAK

- Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue: oihaneder@oihaneder.eus edo telefono hauetara deitu: 945 16 18 30 – 615986831
- Aurkeztutako argazkiak Oihaneder Euskararen Etxearen esku geratuko dira, eta argazki horiek erabiltzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.
- Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu, edo arrazoiren bategatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izpirituarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.
- Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebatzea.

*Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen “JARDUEREN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA” fitxategi automatizatuetan sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak bere eskumenen alorrean antolatzen dituen interes kultural edo sozialeko jarduerak kudeatu, ezagutarazi eta sustatzea da fitxategi horien helburua. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu —dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, jo ezazu Udalaren Argibide Bulegora —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz— edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.